

berria

Ostirala , 2006ko martxoak 10 , 00:06:00an berritua

Gau

Azken ordukoak

Berriak

Harian

Iritzia

Euskal Herria

Ekonomia

Mundua

Gaiak

Kirola

Kultura

Azkena

Agenda

Agenda

Eguraldia

Zozketak

Horoskopoa

Telebista

Farmaziak

Telefonoak

Bereziak

Webguneak

Gure gaiak

Pareak bai

Elkarriketak

English Edition

Bisitak

Hemeroteka

Zerbitzuak

Harpidetza

Publizitatea

Mezuak

Euskal Herria

ETAk bi bonba zartarazi ditu Hego Euskal Herriko mugan

Aurrez DYAk jasotako deiak lau errepidetan lehergailuak jarri zituztela ohartarazi bazuen ere, azkenean soilik Ontonen eta Vianan egin zuten eztanda bonbek; beste bi errepedeetan ez zuten lehergailurik aurkitu

ERREDAKZIOA

ETAk indar txikiko bi lehergailu zartatu zituen atzo hainbat errepidetan: bat, A-8 autobidean, Ontonen (Kantabria, Espainia) eta bestea, N-111 errepedean, Vianan (Nafarroa), Espainiako Errioxarekin mugan. ETAREN izenean euskaraz hitz egin zuen pertsona batek 06:35 aldera Gipuzkoako DYARA deitu zuen, lau errepidetan lehergailuak jarri zituztela ohartarazteko. Lehergailuak non zeuden jakinarazteaz gain, 07:00etatik 09:00ak bitarte eztanda egingo zutela ohartarazi zuen deitzaileak.

Esandako lau lekuetatik bitan DVianan eta Ontonen lehergailu bana zartatu ziren, baina beste bietan ez. ETAREN izenean deitu zuenaren arabera, beste bi lehergailuak honako lekuetan zeuden: A-1 autobidean, Gasteiz eta Burgos artean, eta A-68an, Iruñetik Zaragozako errepedean. Leku horiek itxita egon ziren hainbat orduz, baina Guardia Zibilak ez zuen bonbarik topatu. Aurreneko leherketa goizeko 08:10 aldera izan zen, Onton (Kantabria) herriaren parean. Guardia Zibilak eta Ertzaintzak hesituta zuen ingurua eztanda egin zuenean. Espainiako Gobernuak Kantabrian duen Ordezkaritzak jakinarazitakoaren arabera, indar txikikoa zen lehergailua eta ia ez zuen kalterik eragin. Emandako datuen arabera, bonba hiru kilo lehergaiz osatuta egon zitekeen. Abisua zela-eta, errepedea itxita egon zen eta auto ilarak sortu ziren A-8an ez ezik, N-634 errepedean ere. Bigarren leherketa, goizean 10:00ak inguruan izan zen, Vianaren (Nafarroa) lurraldean, N-111 errepedeko 83,3 kilometroaren parean. Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkaritzaren arabera, leherketa txikia izan zen eta ez zen inor zauritu. Abisua jasota zegoenez, toki hori ere itxita zuen Guardia Zibilak bonbak eztanda egin zuenerako. Asteazken goizean Espainiako Falangeak Santoñan (Kantabria) duen egoitzaren aurka ETAK bonba bat zartarazi eta hogeita lau ordura jazo dira atzoko bi leherketok.

Beste tokiak

Nafarroan eta Kantabrian jarritako lehergailuen berri emateaz gainera, ETAREN izenean hitz egin zuen deitzaileak beste bi tokitan bonbak zeudela ohartarazi zuen atzo; baina, Guardia Zibilak ez zuen lehergailurik aurkitu.

Hala, Gasteiz eta Burgos arteko A-1 errepedeko abisuari dagokionez, guardia

ERO



SAIL

• Cu
«ast
arbu

• Dc
aski
gaix

• AN
abia
depi
dina

• Er
Ima
eski

• 33
uste
egin

• Os
egiti
egor

• Irt
dute
ame

• Oc
egin
Gon

• Gi
sala
egin

• Mz
duel
San
zela

• Ba
iker
hau

